

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRURAIZ-GAUNAKO UDALA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Bat etorri zuzenaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, xedatutakoarekin, Iruraiz-Gaunako Udalaren lanpostu hori gaikuntza nazionala duten toki administrazioako funtzionarioentzat gordeta dago, hain zuzen, idazkaritza-kontuhartzailera azpieskalako funtzionarioentzat.

Lanpostu hori hutsik geratuko da.

Kontuan hartuta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan eta 92. bis artikuluan xedatutakoa.

Erabakitzen da

Lehenengoa: hamabost egun baliaduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkaritza-kontuhartzailera plaza behin-behineko izendapen bidez betetzeko eskaerak aurkezteko. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduari jarraituta egin behar dira.

Gaikuntza nazionala duen toki administrazioako funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Izangai bat baino gehiago aurkezten bada, parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean dagokion ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan puntu gehien lortu duena proposatuko da izendatua izateko.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 4. hizkuntza eskakizuna duela esleitura, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena: Aukeratutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea Arabako Foru Aldundiari.

Laugarrena: Izangairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du gaikuntza nazionalako toki administrazioako funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko 1732/1994 Errege Dekretuak 30. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako prozedurak.

Azilu, 2018ko urriaren 3a

Alkatea

SUSANA DIAZ DE ARCAÑA CUBILLO

ERANSKINA

.....jaunak/andreak (NANa:.....;
jakinarazpenetarako helbidea:.....; telefonoa:.....), zeina
gaikuntza nazionalako funtzionarioa baita,.....azpieskalakoa, eta zeinak
egun.....toki administrazioan.....lanpostua betetzen baitu, hau

Adierazten du

Jakin duela Iruraiz-Gaunako Udalaren idazkari-kontuhartzaile lanpostua hutsik dagoela eta hura aldi baterako betetzeko aukera dagoela gaikuntza nazionalako toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzko uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuaren 30. artikuluekin bat etorritz.

Betetzen dituela, bere ustean, lanpostu horri dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren betekizunak, eta, beraz, indarrean dagoen legeriaren arabera eta dagozkion izapideak betez,

Hauxe eskatzen du

Iruraiz-Gaunako Udaleko idazkari-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten dira:

- NANaren fotokopia.
- Gaikuntza nazionalako funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

....., 2018ko.....aren.....(a).

Sinadura.....